


**Euskal Autonomia Erkidegoan lurpeko babeslekuetan eta
eraikinetan bizi diren kiropteroak kudeatzeko baterako plana,
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta
Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek sinatua**



Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauak, 1992ko maiatzaren 21ekoak, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora zaintzeari buruzkoak, ezartzen du, habitat naturalak narriatzen jarraitzen dutela eta basaespezieen kopuru gero eta handiagoa larriki mehatxatuta dagoela kontuan hartuta, beharrezkoa dela neurriak hartzea horiek kontserbatzeko. Ildo horretan, ezartzen du hartuko diren neurrien xedea izango dela Batasunaren intereseko habitat naturalen eta basoko faunaren eta floraren basaespezieen kontserbazio-egoera onari eustea edo haiek lehenera ekartzea. Batasunaren intereseko basaespezieak aipatutako zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan adierazitakoak dira.

Halaber, ezartzen du estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituztela IV. eranskineko a) letran dauden animalia-espezieen babes-sistema zorrotz bat ezartzeko berezko banaketa-arean. Horien artean, Microchiroptera subordenako espezie guztiak daude, eta, zehazki, honako espezie hauek: ferra-saguzar mediterranea (*Rhinolophus euryale*), ferra-saguzar handia (*Rhinolophus ferrumequinum*), ferra-saguzar txikia (*Rhinolophus hipposideros*), saguzar arratoi-belarri handia (*Myotis myotis*), Geoffroy saguzarra edo belarri zatitukoa (*Myotis emarginatus*), basoko saguzar arratoi-belarria (*Myotis bechsteinii*), iparraldeko belarrihandi arrea (*Plecotus auritus*), hegoaldeko belarrihandi arrea (*Plecotus austriacus*), baso-saguzarra (*Barbastella barbastellus*) eta koba-saguzarra (*Miniopterus schreibersii*). Espezie horientzat guztientzat, kontserbazio-neurri bereziak ezarri behar dira habitatari dagokionez, banaketa-arean horien biziraupena eta ugalketa bermatze aldera, baita horietako habitat batzuk leheneratzeko ere.

Estatu-mailan, irailaren 21eko 33/2015 Legeak, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen abenduaren 13ko 42/2007 Legea aldatzen duenak, 56. eta 58. artikuluetan, Babes Bereziko Erregimenean dauden Basaespezieen Zerrenda (BBEBZ) sortzen du, oinarritzko izaera duena. Horretan sartuta daude baterako kudeaketa-plan honen xede diren hamar espezieak, baita Espainiako Espezie Mehatxatuen Katalogoa (EEMA) ere. Azken horretan, espezie horietatik zazpi «Kaltebera» kategoria dute (39/2011 Errege Dekretua, otsailaren 4koa, Babes Bereziko erregimenean dauden basaespezieen zerrenda eta espezie mehatxatuen Espainiako katalogoa garatzeko). Hortaz, espezie horiek bizi diren autonomia-erkidegoek kontserbazio-planak prestatu behar dituzte horien biziraupena bermatzeko. Testuinguru horretan, 139/2011 Errege Dekretuaren 11.3 artikulua haxe ezartzen du: «banaketa geografiko, habitat, behar ekologiko edo kontserbatzeko arazo antzekoak dituzten espezie mehatxatuen kasuan, hainbat espeziatarako berariazkoak diren estrategiak presta daitezke, eta, ondorioz, kontserbazio-planek izaera berbera izan ahalko lukete».

Gaur egun, apirilaren 15eko 1/2014 Legeak, Euskal Herriko Natura Babesteko Legearen testu bategina onartzen duenak (aurrerantzean, NBLTB), Basoko eta Itsasoko Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoa sortzen eta arautzen du, babes-neurri bereziak behar dituzten espezie, subespezie eta populazioak biltzeko. Hori garatzean onartu zen 167/1996 Dekretua, uztailaren 9koa, Basoko eta Itsasoko Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoa arautzen duena.

2013ko ekainaren 18ko Aginduak, Basoko eta Itsasoko Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoa aldatzen duenak, honako espezie hauek sartu zituen «galzorian» kategorian: basoko saguzar arratoi-belarria (*Myotis bechsteinii*), ferra-saguzar mediterranea

(*Rhinolophus euryale*), barbastela (*Barbastella barbastellus*) eta saguzar arratoi-belarri handia (*Myotis myotis*). «Kaltebera» kategorian honako espezie hauek sartu zituen: koba-saguzarra (*Miniopterus schreibersii*), Geoffroy saguzarra edo belarri zatitukoa (*Myotis emarginatus*) eta ferra-saguzar handia (*Rhinolophus ferrumequinum*). “Interes bereziko” kategorian espezie hauek sartu zituen: iparraldeko belarrihandi arrea (*Plecotus auritus*), hegoaldeko belarrihandi arrea (*Plecotus austriacus*) eta ferra-saguzar txikia (*Rhinolophus hipposideros*). NBLTBaren 50.1 artikulua xedatzen dituen babes-neurriak aplikatu behar izateaz gain, aipatutako espezieak katalogatzeak berekin dakar kudeaketa-plan bat prestatu behar izatea, espezieen gaineko arriskuak desagerrarazteko beharrezko arau eta neurriak ezartzeko eta haien populazioak lehengoratzeko, babestea eta egokiro kudeatzea bultzatzeko, baita haien habitatak babestea eta atxikitzea bultzatzeko, NBLTBaren 50.3 artikuluan xedatutakoarekin bat eginez.

Aipatutako hamar espezieak eta haien habitatak Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko legediaren bidez oro har babesteaz gain, katalogatuta daudenez gero, beharrezkoa da aldian-aldian haien kontserbazio-egoera aztertzea. Horretarako, beharrezkoa da informazioa izatea haien alderdi biologiko eta ekologiko nagusiei buruz, oinarri bat izateko egoera diagnostikatzeko eta kontserbazio-egoera ebaluatze eta, ebaluazioaren arabera, babes-estatusen aldaketak egiteko.

Gainera, aurreikusitako plangintza bat dator abenduaren 13ko 42/2007 Legea, natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzkoa, aldatzen duen irailaren 21eko 33/2015 Legearen 59.1.a artikuluan xedatzen denarekin, eta, hortaz, Estatuko oinarrizko legediak aipatzen duen lehengoratzeko-planaren Euskadiko baliokidea da.

Administrazio eskudunetako estamentuak koordinatuta, Eusko Jaurlaritzako eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundietako teknikariek lantalde bat eratu zuten, eta lantaldeak baterako kudeaketa-plan bat prestatu du, espezie horien adituekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurpeko babeslekuetan eta eraikinetan bizi diren kiropteroei eragiten diena.

Eusko Jaurlaritzak eta hiru lurralde historikoek Kudeaketa Plana idatzi dute guztien artean kudeaketa-plan bat prestatzeko betebeharra zutelako, NBLTBak 50.3 artikuluan eta uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuak, Basa eta Itsas Basoko eta Itsasoko Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoa arautzeko denak, 8.2 artikuluan xedatzen dutenarekin bat egitez.

Baterako kudeaketa-plana idatzi eta gero, 167/1996 Dekretuko 8.2 artikulua aplikatze aldera, hiru lurralde historikoetako foru-organismoek onartu egingo dute, aipatutako espezieen berezko banaketa-areetarako eta espezieen populazioak lehengoratzeko bultzatzen den eremuetarako.

XEDAPENAK

1. artikulua.- Baterako kudeaketa-plana onartzea

1.- Euskal Autonomia Erkidegoan lurpeko babeslekuetan eta eraikinetan bizi diren kiropteroen baterako kudeaketa-plana onartu da.

2.- Baterako kudeaketa-plana I. eranskinean adierazitako espezieei buruzkoa da soilik, eta planari dagokionez, «hertsiki kabernikolatzat» edo «noizbehinkako kabernikolatzat» joko dira honako hauek:

Ferra-saguzar mediterranea (*Rhinolophus euryale*), hertsiki kabernikola,
Ferra-saguzar handia (*Rhinolophus ferrumequinum*), hertsiki kabernikola,
Ferra-saguzar txikia (*Rhinolophus hipposideros*), hertsiki kabernikola,
Saguzar arratoi-belarri handia (*Myotis myotis*), hertsiki kabernikola,
Geoffroy saguzarra edo belarri zatitukoa (*Myotis emarginatus*), hertsiki kabernikola,
Basoko saguzar arratoi-belarria (*Myotis bechsteinii*), noizbehinkako kabernikola,
Iparraldeko belarrihandi arrea (*Plecotus auritus*), noizbehinkako kabernikola,
Hegoaldeko belarrihandi arrea (*Plecotus austriacus*), noizbehinkako kabernikola,
Barbastela (*Barbastella barbastellus*), noizbehinkako kabernikola,
Koba-saguzarra (*Miniopterus schreibersii*), hertsiki kabernikola.

3.- Arau aplikagarrien arabera mehatxuaren egungo estatusa II. eranskineko taulan adierazitakoa da.

2. artikulua.- Baterako kudeaketa-planaren helburuak

1.- Baterako kudeaketa-plan honen helburu nagusia da bertan adierazitako kiropteroen espezieen kontserbazio-egoera hobetzea. Horretarako, espezie mehatxatu horien populazioaren dinamikan eragina duten edo izan duten eta haien babeslekuetara lotura duten faktore kaltegarriak ezabatuko dira, epe luzean populazioak tamaina bideragarria izan dezan edo ahalezko habitat bat kolonizatu dezan.

2.- Helburu bereziak:

- a) «Galzorian» kategoria duten espezieentzat:
 - Hertsiki kabernikolak diren espezieen kolonien eta populazioen kopurua areagotzea eta EAEko populazio globala handitzea.
 - Noizbehinkako kabernikolak diren espezieen kolonien kopurua mantentzea.
- b) «Kaltebera» kategoria duten espezieentzat:
 - Hertsiki kabernikolak diren espezieen kolonien tamaina mantentzea eta EAEko populazio globala handitzea.
 - Noizbehinkako kabernikolak diren espezieen kolonien tamaina mantentzea.
- c) «Interes berezikoa» kategoria duten espezieentzat, haien populazioak mantentzea.
- d) Espezie guztien babeslekuen erabileraren fenologia ezagutzea; hau da, hibernazio- eta ugaltze-garaiak eta horien arteko trantsizioa, baita espezie bakoitzak erabiltzen dituen babeslekuak ere.

3. artikulua.- Indarraldia eta aplikazioa

1.- Baterako kudeaketa-plana bere osotasunean eta muga gabe aplikatuko da, indarrean sartzen denetik Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoko kiropteroen espezieak horretatik

atera daitezkeen arte (167/1996 Dekretua eta 2013ko ekainaren 18ko Agindua, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, Basa eta Itsas Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoa arautzeko dena).

2.- Funtsezko aldaketarik badago espezieen, haien babeslekuen edo habitaten kontserbazio-egoeran, Eusko Jaurlaritzako sail eskudunak, foru-erakundeetako sail eskudunekin koordinatuta, baterako kudeaketa-planaren edukia berrikus dezake, eta, egoki baderitzo, aplikazio-eremua eta helburu orokorrak, arauak, ildoak eta planaren helburua lortzeko neurriak berriz zehaztu ditzake.

3.- Edonola ere, baterako kudeaketa-plana sei urtean behin ebaluatuko da eta, egoki irizten bazaio, berrikusi ere egingo da. Nolanahi ere, plana mugagabea izango da berdin-berdin.

4.- Foru-erakundeetako sail eskudunei dagokie beren lurralde historikoan baterako kudeaketa-planaren aurretiko eta ondoriozko jarduketak garatzea eta betearaztea. Plan hori garatze aldera, jarduera-programak egingo dira aurreikuspenak betetzeko, denborari eta espazioari dagokienez.

4. artikulua.- Definizioak

Hauexek dira baterako kudeaketa-planaren helburuetarako definizioak:

a) Lehentasunezko babeslekua: Lehentasunezkotzat joko dira egun edo azken 30 urteetan gutxienez irizpide hauetako bat betetzen dutenak:

- *Rhinolophus euryale* espeziearen koloniak izatea.
- *Rhinolophus ferrumequinum* espeziearen 50 ale baino gehiagoko koloniak izatea.
- *Rhinolophus hipposideros* espeziearen 30 ale heldu baino gehiagoko koloniak izatea.
- *Myotis myotis* espeziearen ugaltze-kolonia bat duen edozein eta espezie bereko 30 ale baino gehiago dituztenak.
- *Myotis emarginatus* espeziearen 50 ale heldu baino gehiagoko koloniak izatea.
- Hibernazio-garaian dauden *Myotis bechsteinii* espeziearen koloniak edo espezie bereko uda ondoko agregazioak (swarming) dituzten lurpeko babeslekuak.
- *Plecotus auritus* espeziearen 30 ale heldu baino gehiagoko koloniak dituzten eraikinetako babeslekuak, baita hibernazio-garaian dauden espezie bereko 15 ale baino gehiago dituzten edo espezie bereko uda ondoko agregazioak dituzten lurpeko babeslekuak ere.
- *Plecotus austriacus* espeziearen 30 ale heldu baino gehiagoko koloniak dituzten eraikinetako babeslekuak, baita hibernazio-garaian dauden espezie bereko 15 ale baino gehiago dituzten edo espezie bereko uda ondoko agregazioak dituzten lurpeko babeslekuak ere.
- *Barbastella barbastellus* espeziearen 15 ale baino gehiagoko koloniak edo espezie bereko uda ondoko agregazioak dituzten lurpeko babeslekuak.
- *Miniopterus schreibersii* espeziearen 100 ale baino gehiagoko koloniak dituztenak.

Egun, EAEn lehentasunezko babeslekutzat jotzen dira baterako kudeaketa-plan honen III. eranskineko zerrendan jasotakoak. Zerrenda hori irekita dago, eta espezieen ezagutza eta horien jarraipenean egindako aurrerapenak hala gomendatzen dutenean osatuko da.

b) Bestelako babeslekuak, bai lurpekoak bai eraikin edo instalazioetakoak: egun saguzarren koloniarik ez duten arren, azken 60 urteetan koloniaren bat izan duten lurpeko babeslekuak, eraikinak eta instalazioak. Talde horretan sartzen dira egun saguzarren koloniarik ez duten baina, inguruan ezagunak diren koloniak daudenez, izan ditzaketenak ere.

Eusko Jaurlaritzako sail eskudunak, foru-erakundeetako sail eskudunekin koordinatuta, babesleku horien zerrenda ireki bat prestatuko du, eta hori espezieen ezagutza eta horien jarraipenean egindako aurrerapenak hala gomendatzen dutenean osatuko da.

c) Espeziearen kontserbazio-egoera: espeziean eragina duten eta epe luzean populazioen banaketan eta tamainan eragina izan dezaketen faktoreen multzoa. Kontserbazio-egoera ona da espezieen populazioen dinamikari buruzko datuek zera adierazten badute: espezieak berebiziko garrantzia duela artean bere habitatetan, eta epe luzean ere izan dezakeela; berezko banaketa-area murrizten ari ez dela, eta ez dagoela aurreikus daitekeen etorkizunean murrizteko arriskurik; eta habitataren azalera nahikoa dela populazioak epe luzean atxikitzeko, eta pentsatzekoa dela etorkizunean ere nahikoa izango dela.

d) Espezie baten habitata: espeziea bere ziklo biologikoko faseren batean bizi den ingurunea. Faktore abiotiko eta faktore biotiko espezifikoek baldintzatzen dute.

e) Espezie baten aldi kritikoa: edozein giza jarduera espeziearentzako bereziki kaltegarria izan daitekeen denboraldia.

f) Uda ondoko agregazioak: abuztuaren eta urriaren artean saguzarren hainbat espeziek aldi baterako taldeak eratzen dituzte ugaltzeko eta hibernatzeko ez diren trantsizio-babeslekuetan, eta horiek hainbat funtzio biologiko dituzte. Hibernazio-guneetarako bidean dauden urteko hegalaria gazteen taldeak izan daitezke, baita milaka banakok bat egiten duten babeslekuak ere (askotan hainbat espezieetakoak eta, batez ere, arrak, nahiz eta batzuetan emeek bisitatzen dituzten). Azken kasu horretan, estalketarekin lotutako jokabidea izaten dute (*swarming*). Era berean, ugaltzekoaren eta hibernatzekoaren bitarteko babesleku soila ere izan daiteke.

5. artikulua.- Aplikazio-eremua

1.- Baterako kudeaketa-planeko xedapenak, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan aplikatuko dira.

2.- Berariazko aplikazio-eremua: Lehentasunezko babeslekuetan eta bestelako babeslekuetan (bai lurpekoak bai EAEko eraikin eta instalazioetan daudenak), III. eranskineko zerrenda irekian eta bestelako babeslekuen zerrendan badaude.

3.- Etorkizunean baliabide naturalak antolatzeke egiten diren planek, erabiltzeko eta kudeatzeko egiten diren gida planek, hegaztiak bereziki babesteko eremuak eta kontserbazio

bereziko eremuak izendatzen direnean haiek babesteko neurriak hartzeko prestatzen diren dokumentuek eta lurraldea eta sektorea planifikatzeko eta antolatzeko gainerako tresna guztiek bete egingo dituzte baterako kudeaketa-planak lehentasunezko babeslekuetarako eta bestelako babeslekuetarako ezarritako helburuak, arauak, ildoak eta neurriak. Planek kontuan hartuko dute kiropteroen espezieak (baterako kudeaketa-plan honen xedea) daudela beren lurralde-eremuan. Ildo horretan, lurraldea eremutan banatzen eta muga orokor eta espezifikoak ezartzen dituztenean, kontuan hartuko dituzte baterako kudeaketa-planak espezie horiek babesteko, haien populazioak lehengoratzeko eta haien habitatak babesteko eta lehengoratzeko finkatzen dituen helburu, arau eta neurriak.

4.- NBLTBaren 54. artikuluan ezarritakoa betez, lurralde- eta hirigintza-plangintza egiteko tresnek, haien lurralde-esparruan lehentasunezko babeslekuak badaude, honako hau bermatuko dute: baterako kudeaketa-plan honen xede diren hamar espezieen lehentasunezko babesleku horiek babestea, mantentzea edo leheneratzea. Halaber, erabilerak arautzea edo mugatzea beharrezkoa den kasuak arrazoituko dira.

6. artikulua.- Ingurumenaren ebaluazioa

1.- Baldin eta plan, programa edo proiektu batek zuzeneko edo zeharkako eragina izan badezake kiroptero kabernikolen lehentasunezko babeslekuetan eta bestelako babeslekuetan, bakarka edo beste batzuekin batera, eragin nabarmena izan badezake espezie horien babesean eta haiek lehengoratzeko aukeretan, lurralde historiko bakoitzean baterako kudeaketa-plana aplikatzeko eskumena duen sailak txosten bat egingo du nahitaez, ebaluatzeko nolako eragina izango duen plan, programa edo proiektuak kudeaketa-planaren helburuetan. Txostena loteslea izango da.

2.- Besteak beste, ebaluazioak hauek hartuko ditu kontuan: plan, programa edo proiektuak zer-nolako eragina izango duen babeslekuen aldaketan eta horien inguruan 1 km-ko perimetroan dagoen landarediaren eta habitataren aldaketan; espezieetan eragin nabarmena izan dezaketen elementu eta egitura artifizialak sartzeak zer-nolako ondorioak izango dituen; giza jarduerak trabarik egingo duten; eta errazagoa izango den ugaltzeko, hibernatzeko, trantsiziorako eta uda ondoko agregaziorako lurralde eta eremu nagusietara iristea. Halaber, espezieen behar ekologikoak eta haien habitataren mantentzea kontuan hartu beharko dituzte:

- a) hostozabal-baso autoktonoak atxikitzea edo handitzea zainduko dute, baita habitaten landarediaren eta baldintzen egitura ez aldatzea ere.
- b) *Miniopterus schreibersi* espeziearentzat izan ezik, gainerako guztientzat beharrezkoa izango da basoan lerro bat gordetzea, babeslekuen eta ehiza-guneen arteko korridorea izango balitz bezala.
- c) giza eragozpenak ekiditeko neurriak aurreikustea, eta lehentasunezko babeslekuetarako bidea galaraztea ugaltze- eta hibernatze-garaian, baita trantsizioaren eta uda ondoko agregazioaren garaian ere.

3.- Lehentasunezko babeslekuetan eta horien inguruko 1 km-ko perimetroan jarduketak edo proiektuak egiteko baimenak eta kontzesioak eskuratzeko administrazio-prozeduretan,

espezieengan eta bere populazioaren dinamiketan izan ditzaketen ondorioak aztertzeko, diagnostikatzeko eta baloratzeko behar diren txosten eta azterlan guztiak sartu behar dira.

7. artikulua.- Debeku orokorrak

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan debeku orokor hauek aplikatzen dira baterako kudeaketa-plan honen I. eranskineko espezieei dagokienez:

- a) Espezieak akabatzeko edo harrapatzeko eta espezieei jazartzeko edo traba egiteko baimendu gabeko edozein jarduketa egitea eta haien elikatzeko habitatak suntsitzea eta aldatzea; bereziki, ugaltzeko, hibernatzeko, trantsiziorako eta uda ondoko agregaziorako babeslekuak.
- b) Ale bizi edo hilak edukitzea, naturalizatzeko, garraiatzea, saltzea, erakustea, inportatzea eta esportatzea eta basoko helduak eta haien kumeak elikatzea, araudiak dioenean izan ezik.
- c) Postu finkoak ezartzea behatzeko eta irudia edo soinua erregistratzeko, baldin eta postuak lehentasunezko babeslekuetatik 250 m baino gutxiagora badaude, salbu eta lurralde historiko bakoitzean eskumena duen sailak baimena ematen badu berariaz.

8. artikulua.- Lurpeko babeslekuak babesteko neurri bereziak.

1. Pertsonen presentzia monitorizatuko da, lehentasunezko lurpeko babeslekuetan dauden kolonien perturbazio-iturriak identifikatzeko helburuarekin.

2. Lehentasunezko babeslekuetan, beharrezkoa denean, horiek okupatzen dituzten saguzarren espezieak sartzeko bermatzeko itxiturak instalatu eta mantenduko dira, baterako kudeaketa-plan honen V. eranskinean gomendatutako itxitura motak aintzat hartuta.

3. Kolonien perturbazio-iturriak ezabatzeko helburuarekin, lurralde historikoetako organo eskudunek giza jarduera mota guztiak arautuko dituzte lehentasunezko babeslekuetan (ludikoak, hezigarriak, turistikoak, erauztekoak, zientifikoak edo beste mota batekoak). Halaber, zehaztuko dute zein babeslekutan arautu behar den sarbidea, baita zein garaitan egongo den debekatuta ere, baterako kudeaketa-plan honen III. eranskinak ezarritakoari jarraikiz. Sartzeko baimen bereziak emanaz gero, emandako baimenen eta horien baldintza nabarmenenen erregistroa egin beharko da.

3. Egun itxiturak dituzten lurpeko babeslekuei dagokienez, itxitura horiek saguzar-espezieak sartu ahal izatea bermatzen ez badute edo horiei kalteak eragin badiezazkieke, honako neurri hauek aplikatuko dira:

- a) Lurralde historiko bakoitzean itxitura duten lurpeko babeslekuen inbentarioa egitea, arkeologia-ondarearen arloko organo eskudunarekin elkarlanean.
- b) Azken 60 urteetan saguzar-koloniak izan dituzten lurpeko babeslekuetan eta inguruan ezagunak diren koloniak dituzten babeslekuetan, itxitura desagokiak kenduko

dira eta, beharrezkoa izanez gero, itxitura egokiekin ordeztuko dira, lehentasun hauek aintzat hartuta:

- a. iraganean egondako kolonien garrantzia, horiek okupatzen zituzten espezieak eta desagertu zirenetik igarotako denbora.
- b. inguruko kolonien garrantzia eta horiekiko gertutasuna.
- c. lurpeko babeslekuak kiropteroentzako babesleku izateko duen gaitasuna, topografiaren eta kokapenaren arabera.

4. Itxiturarik ez duten lurpeko babeslekuetan bat instalatzea erabakiko balitz, instalazio hori egiteko kontuan hartuko dira V. eranskinean gomendatutako itxitura motak, saguzarrak ikusi diren ala ez aintzat hartu gabe.

9. artikulua.- Erakinetan eta instalazioetan kiropteroak babesteko neurri bereziak.

1.- Kiropteroak dituzten titulartasun publikoko eraikin eta instalazioetan egiten diren lanek, edo lanok finantziazio publikoarekin egiten badira, saguzarren ongizatea bermatu beharko dute, batez ere, lanak egiteko garaiari eta zura tratatzeko erabiliko den produktu motari dagokienez. Halaber, osasun-arrazoiengatik beharrezkoak izan daitezkeen babesak bermatuko dira.

2.- Administrazio eskudunek kudeaketa-formulak sustatuko dituzte, eta horiek, era berean, kiropteroak dituzten erakinen eta instalazioen jabeak eta erabiltzaileak (pertsona fisiko edo juridikoak) inplikatu dituzte horiek kontserbatzeko. Horretarako, beste batzuen artean, lurraldea zaintzeko borondatezko akordioak, laguntza publikoak emateko lehenespenak eta antzekoak sustatuko dira.

10. artikulua.- Jarraipenerako eta ebaluaziorako neurriak

1.- Baterako kudeaketa-plan honen helburuak betetzen direla bermatzeko, gutxienez sei urtean behin, planaren xedapenen betetze-maila ebaluatuko da, baita horren xede diren kiropteroen espezieen kontserbazio-egoera ere. Horretarako, kontuan hartuko da agiri honen VI. eranskineko ebaluazio-metodologiaren proposamen orientagarria.

2.- Kudeaketa-plan honetako espezieen kontserbazio-egoera ebaluatzeko, Habitategi buruzko Zuzentarauaren 11. eta 17. artikuluen txostenak prestatzeko garatutako metodologia erabiliko da.

3.- Babeslekuaren egoeraren monitorizazioak honako hauek jaso beharko ditu gutxienez:

- a) Lurpeko babeslekuetan, itxituren egoeraren berrikuspena, horrelakorik badago eta giza jardueraren aztarnarik badago: pintadak, suen hondakinak, suntsiketak...
- b) Eraikin eta instalazioetan: giza jardueraren aztarnak, hala nola babeslekuaren ohiko sarbideetako oztopoak, produktu kimikoen erabilera (zura tratatzekoak, intsektizidak...) edo argi berriak.

4. Hibernazioan, trantsizioan, ugalketan eta uda ondoko agregazioan dauden kolonia berriak bilatuko dira, IV. eranskinean proposatutako metodologiari jarraituz.

11. artikulua.- Administrazioak eta herritarrak informatzea eta sentsibilizatzea sustatzeko neurriak.

1. Dibulgazio-kanpainak sustatuko dira, iritzi publikoa kiropteroen egoerari, arazoei eta babes-beharrari buruz areago sentsibilizatzeke eta baterako kudeaketa-plan honetan ezartzen diren arau eta neurriak jendarteratzeko.

2. Naturagune babestuetan dauden natura interpretatzeko zentroetan, kiropteroei buruzko berariazko informazio-, dibulgazio- eta sentsibilizazio-jarduerak egitea sustatuko da, eta, bereziki, fauna-talde horren alderdi positiboak nabarmenduko dira.

3. Berariazko heziketa-kanpainak egingo dira kiropteroen lehentasunezko babeslekuetatik hurbil dauden eskoletan, haur eta gazteak espezie horien kontserbazioari buruz sentsibilizatzeke, baita espezieak babesteko neurrien eraginpeko talde guztien artean edo espezieetan eta haien habitatetan interesa duten taldeen artean ere.

4. Aldian-aldean, baterako kudeaketa-plan honek gizartean duen onespen-maila ebaluatuko da; bereziki, landa-ingurunearekin harreman handia duten taldeen artean duena.

5.- Espeleologia- eta arkeologia-taldeekiko nahiz abentura-jardueren enpresekiko harremana sustatuko da, eta baterako kudeaketa-planari, biologiari, arazoei eta saguzarrak babesteko neurriei buruzko informazioa helaraziko zaie. Haien lankidetzak bultzatuko da, informazioa biltzeari eta trukatzeari dagokionez.

6.- Turismo-jarduerak egiten diren lurpeko babeslekuetan (Arrikutz, Ekain, Pozalagua...), lurpeko ekosistemen kontserbazioari eta saguzarrei buruzko informazio orokorra emango da.

7.- Babeslekuen jabeekiko eta arduradunekiko harremana sustatuko da (lursail pribatuetan dauden lurpeko babeslekuak, eraikinak...). Saguzarrei eta haien kontserbazio-beharrei buruzko informazioa emango zaie, saguzarrok osasun-arazorik sortzen ez dutela nabarmenduta. Halaber, haien lursailean bizi den koloniari buruzko informazioa emango zaie eta jarraipenaren emaitzak helaraziko zaizkie.

8.- Zura tratatzeko enpresei zuzendutako informazio-kanpainak egingo dira. Saguzarrak antzematen irakatsiko zaie eta kontuan hartu beharreko neurriei eta haien babeslekuarekin aritzean erabili beharreko produktuei buruzko informazioa emango zaie.

9.- Eraikinak eta instalazioak eraberritzeko enpresei zuzendutako informazio-kanpainak egingo dira. Saguzarrak antzematen irakatsiko zaie eta saguzarrak eta haien babeslekuak kaltetzen ez dituzten lan-metodo eta -aukerak buruzko informazioa emango zaie. Beren jardueraren ondorioz kiropteroen kolonia anitzak aurkitzen badituzte, foru-agintaritza eskuduna jakinaren gainean jartzeko eskatuko zaie.

10.- Administrazioen oihanzango-zerbitzuetara bideratutako jarduerak sustatuko dira, espezieen biologiari eta arazoei, haien egungo egoerari eta baterako kudeaketa-planaren

edukiari buruz dituzten ezaupideak hobetzeko. Haien inplikazioa bultzatuko da, kiropteroei buruzko ezagutza hobetzeko informazioa biltzeari dagokionez.

11.- Eusko Jaurlaritzaren sail eskudunak eta lurralde historiko bakoitzeko sail eskudunek baterako kudeaketa-plana teknikarien artean hedatzea bultzatuko dute (bai beren administrazioetako teknikarien artean bai foru-aldundietan, Eusko Jaurlaritzan eta beste administrazio batzuetan gaiarekin zerikusia duten sail eta estamentuetako teknikarien artean), espezieen arrisku-egoera eta estatus juridikoa eta baterako kudeaketa-planaren helburu, arau eta babes-neurriak ezagutaraz daitezzen eta horiek guztiak kontuan har daitezzen nork bere eskumenen esparruan sustatzen dituen jarduketak sektorialetan.

12.- Baterako kudeaketa-plana autonomia-erkidego mugakideetan nahiz Estatuko Administrazio Orokorrean fauna eta habitatak kudeatzeko eskumena duten entitateei eta espezieekin lan egiten duten lantalde teknikoetako kideei helaraziko zaie, haren berri izan dezaten, eskualdeen arteko lankidetzaren esparruan neurri osagarriak hartzea azter dezaten eta jarduketak koordina ditzaten.

12. artikulua.- Koordinazioa

1.- Foru-aldundietako sail eskudunek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sail eskudunak baterako kudeaketa-planaren aplikazioari buruzko informazioa emango diote elkarri. Halaber, hiru urtean behin, galzoriko espezien buruzko informazioa eta, sei urtean behin, planeko gainerako espezieei buruzkoa emango diete elkarri. Informazio horrek honako hauek zehaztuko ditu: egindako jarduketak, lortutako emaitza eta helburuen ebaluazioa, eta baterako kudeaketa-planeko espezieak Basoko eta Itsasoko Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoaren barruan uzteko, katalogotik ateratzeko edo kategoriaz aldatzeko proposamena.

2.- Foru-aldundietako sail eskudunekin batera, jarduketak administrazio beste sail eta erakunde batzuekin (foru-aldundietakoak, Eusko Jaurlaritzakoak, udaletakoak eta beste toki-administrazio edo -erakundeetakoak) koordinatzea bultzatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sail eskudunak, baita gaiarekin zerikusia duten gizarteko beste talde batzuekin koordinatzea ere.

3.- Baterako kudeaketa-planaren aplikazioa ahalik eta eraginkorrena izan dadin, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-erakundeetako sail eskudunek lankidetzak-hitzarmenak sina ditzakete beste administrazio publiko batzuekin, unibertsitate eta ikerketa-zentroekin, Espainiako eta nazioarteko lantaldeekin, irabazi-asmorik gabeko erakundeekin eta enpresa publiko zein pribatuekin, baita beharrezkotzat jotzen dituzten gainerako koordinazio- eta finantzaketa-mekanismoak ezarri ere.

13. artikulua.- Arau-hausteak

Baterako kudeaketa-planaren kontrako arau-hausteak zehatu egingo dira, natura zaintzeari buruz indarrean dagoen araudiak dioenaren arabera. Gainera, bide penalean, bide zibilean edo beste edozein bidetan egon daitekeen erantzukizuna eska daiteke.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehena.- Baterako kudeaketa-plan honen xedapenak aplikatzen zaizkien eta III. eranskinean jasota dauden lehentasunezko babeslekuen zerrenda eta beste babesleku batzuen zerrenda irekia eguneratu ahalko dira, babesleku gehiago gehituta, lurralde historiko bakoitzeko foru-agindu edo -dekretu baten bidez (kasuan kasukoa). Zerrendak plan honetan eguneratuko dira, planeko 3.3 artikuluan ezarritako berrikuspena baliatuta, sei urtez behin, sailburuaren aginduaren bidez edo EAEko administraziooko sail eskudunaren ebazpenaren bidez.

Bigarrena.- Baterako kudeaketa-plana lurralde historiko bakoitzean aplikatzeko, dagokion foru-aginduaren bidez onartu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek batera onartu eta sei hilabeteko epean. Plana lurralde historiko bakoitzeko aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

I. ERANSKINA.- Baterako kudeaketa-planeko kiropteroen espezieak

Ferra-saguzar mediterranea, *Rhinolophus euryale* (Blasius, 1853)

Hibernazio- eta ugaltze-koloniak lurpeko babeslekuetan eratzen dira; ehunka banakok osa ditzakete biak. Ehiza-habitat gisa oihan hostoerorkorrak eta heskai naturalak hautatzen dituzte, eta lotuta daude mosaizismo handia duen haran-hondoko landazabal zuhaitzuko paisaiarekin.

Haren mehatxu nagusiak babeslekuetako perturbazioak eta horien galerak dira. Hala ere, eragin kaltegarria dute ere nekazaritza eta basozaintzako intsektiziden erabilera masiboak eta habitata galtzeak, azken horren kasuan, konifero eta eukaliptoen sail monoespezifikoak areagotzearen ondorioz.

EAEn banaketa irregularra du, eta hori lotuta dago kota baxuetan eremu karstikoak egotearekin. 1960ko hamarkadan, herri askotan aurkitu zuten espeziea, baina horietako askotatik desagertu zen, batez ere Gipuzkoako kostaldetik, baina baita Bizkaitik ere. Joera hori mantendu da azken hamarkadan, Enkarterrin beste ugaltze-kolonia bat desagertu baita. Egun, hiru ugaltze-kolonia ezagun baino ez daude, bi Enkarterrin eta bat Urdaibai-Lean. 1990eko hamarkadaren amaieran, EAEn 900 banako inguruko gutxieneko populazio ugaltzailea kalkulatu zen, baina, 2012an, populazio hori 700-750 banakora murriztu zen, eta populazioaren % 80 kolonia bakar batean dago.

Ferra-saguzar handia, *Rhinolophus ferrumequinum* (Schreber, 1774)

Ugaltze-koloniak eraikin hutsetan edo baserri eta elizetan eratzen dira, baita lurpeko babeslekuen kanpoaldetik gertuen dauden guneeetan eta/edo gunerik beroenetan ere. Hibernazio-koloniak koba eta meatze hotz eta hezeetan eratzen dira. Espeziea lotuta dago hostozabal hostoerorkorrak, heskaiak eta gertu larreak dituzten baso natiboekin; bizi-eremu dituzte horiek.

Hauexek dira haren mehatxu generikoak: babeslekuen galera, hibernazio- eta ugaltze-koloniei eragindako eragozpenak, eraikinetako zurak babesteko tratamenduak eta habitataren kalitatearen aldaketak (intsektizida ez-espezifikoen erabilera eta konifero eta eukaliptoen sailen hazkundera).

EAEn, 1990eko hamarkadaren amaieran, 6000-7000 banako zituen populazio hibernatzailea zegoela kalkulatu genuen. Gainera, azken hamarkadan, 1300 banako inguru zenbatu dira ugaltze-kolonietan. Hala ere, kolonia horien sakabanaketak eta horiek egon daitezkeen babeslekuen aniztasunak adierazten digute populazio ugaltzailea askoz handiagoa izan behar dela. Edonola ere, azken hamarkada honetan kolonia batzuk galdu dira eta erabil daitezkeen babeslekuen kopurua beherantz ari da.

Ferra-saguzar txikia, *Rhinolophus hipposideros* (Bechstein, 1800)

Lurpeko babeslekuetan hibernatzen du, talde txikietan edo bakarka. Ugaltze-koloniak ere txikiak dira, eta, batez ere, eraikin hutsetan edo gutxi erabiltzen direnetan egoten dira (kidekoek baino hobeto jasaten dute gizakien presentzia), baina baita koben barruan ere, hain zuzen, kanpoaldetik gertuen dauden guneeetan. Ehiza-habitata hostoerorkorren guneeak, baso-bazterrek, hostoerorkorren heskaiek eta erribera-basoek osatzen dute.

Hauexek dira espeziearen mehatxu nagusiak: babeslekuetako eragozpenak edo horien galera, batez ere, zura babesteko tratamenduengatik, koloniak husteagatik eta nekazaritza eta basozaintzako intsektiziden erabilera masiboagatik. Mehatxu horiek larriak dira espezie sedentarioa delako, baina, bestalde, plastikotasun handia erakusten dute babeslekuak erabiltzean.

EAEEn oso hedatuta dago, baina modu irregularrean. Ez dago populazioaren tamaina eta joera kalkulatzeko ahalbidetzen duen datu fidagarriarik koloniak oso sakabanatuta daudelako eta antzemateko zailak direlako, baina agerikoa da eraikinetako ugaltze-kolonia batzuk desagertu direla gizakiengatik.

Saguzar arratoi-belarri handia, *Myotis myotis* (Borkhausen, 1797)

Batez ere kobetan eta meatzeetan babesten da, eta, udaberrian, banako isolatuek harrizko zubien zuloak erabiltzen dituzte; ugaltze-garaian, emeak oso gregarioak dira. Basoak dituzten paisaietan bizi dira, eta bertan eta inguruko gunek irekietan edo landuetan ehizatzen dute.

Mehatxu nagusiak babeslekuei eragindako eragozpenak eta horien galera dira, baita nekazaritza eta basozaintzako intsektiziden erabilera masiboa eta abereentzako parasitoen aurkako tratamenduak ere, eragina baitute espezieak elikatzeko erabiltzen dituen kakarraldoko koprofagoetan.

EAEEn, isurialde mediterraneoan daude ia eskusiboki, eta, nahiko hedatuta egon arren, populazio oso urria ezagutzen dugu. Gipuzkoako hainbat kobetatik desagertu da, eta ezagutzen dugun ugaltze-kolonia bakarrak 700 eme inguruko populazioa du.

Belarri zatituko saguzarra, *Myotis emarginatus* (Geoffroy, 1806)

Hibernazio-koloniak kobetan daude, eta ugaltze-koloniak, aldiz, koba beroetan eta hainbat motako eraikinetan. Emeek osatzen dituzten ugaltze-kolonietan dozenaka nahiz zenbait ehunekotan zenbatu daiteke aleak. Orografia malkartsuarekin, zuhaitzezko estaldurarekin eta ur-ibilgu egonkorrekin lotuta dago. Landaredi mota desberdinak dituen gunek okupa ditzakeen arren, ematen du baso itxiak ekiditen dituela.

Hauexek dira mehatxu nagusiak: hibernatzeko eta ugaltzeko lurpeko babeslekuen kalteak eta aldaketak, eraikinetan ugaltze-koloniak hustea eta zura mantentzeko tratamenduen erruz horiek desagertzea.

EAEEn nahiko hedatuta dago, batez ere, erdialdean eta iparraldean. Populazioa egonkor mantentzen da eta kalkulatzeko dugu gutxienez 1000 eme heldu daudela ezagutzen ditugun 9

kolonietan banatuta, nahiz eta, ziur aski, benetako kopurua askoz handiagoa izan. Azkenengo hamarkadan, eraikinetan gutxienez bi kolonia galdu dira.

Bechstein saguzarra, *Myotis bechsteinii* (Kuhl, 1817)

Ugaltze-kolonia txikiak eratzen dituzte ale emeek (dozena gutxi batzuek), ia beti picidae familiako aleek utzitako habietan. Habi edo babesleku horien dentsitate handia behar dute kokagune berean kolonia horiek osatzeko. Ez dakigu neguan zer babesleku motak duten garrantzia. Basoetan bizi da, eta Iberiar Penintsulan, ugaltze-garaian, haritz eta motzondo helduen eremu handi eta ustiatu gabekoetan izaten dira gehien-gehienetan. Haran-hondo termofiloak dituzte gustuko.

Harizti helduen desagertzea da haren mehatxurik handiena, baita harizti horietako arbola zaharren, konplexutasunaren eta egituraren galera ere. Banaketa-eredu sakabanatua erakusten dute, eta haien jaiolekuan bizi edo bueltatzeko joera handia dutenez, ez dago gutxieneko populaziorik bizirauteko aukerarik, ez alderdi demografikotik, ez alderdi genetikotik.

EAEn, azken hamarkadan, haren banaketari buruzko ezagutza handitu da, eta Arabako hiru herritan soilik antzeman dira populazio ugaltzaileak. Ar isolatuak ere antzeman dira 4 herritan.

Iparraldeko belarrihandi arrea, *Plecotus auritus* (Linnaeus, 1758)

Babesleku ugari erabiltzen ditu. Udan, nagusiki honako hauetan egoten da: zuhaitzen zuloetan, teilatuetan, etxe nahiz elizetako (ahal dela, zaharrak eta zuhaitzien ondoan daudenak) ganbaretan eta habia-kutxetan. Neguan, kobak, meatzeak, eraikinak eta zuhaitzen zuloak erabiltzen ditu. Espeziea, oro har, basoan bizi da, batez ere zuhaitz hostoerorkorrak dituztenetan; herrietako eta hirietako parke eta lorategietan ere bizi da.

Hauexek dira arrisku-faktore nagusiak: baso hostoerorkor helduen galera eta horrek dakarren babeslekuen galera, baita intsektizida ez-espezifikoen erabilera eta eraikinetako zura babesteko tratamenduak ere.

EAEn, espezie nahiko arrunta da eta oso hedatuta dago, baina ohikoagoa da mendi-eremuetako herrietan aurkitzea. Hilkortasun-tasa handia egiaztatu da eraikinetan zura tratatzeko intsektiziden erabileragatik, eta haren kontserbazio-egoerak txarrera egin lezake etorkizunean.

Hegoaldeko belarrihandi arrea, *Plecotus austriacus* (Linnaeus, 1758)

Kobetan, meatzeetan, eraikinetan eta zuhaitzetan hibernatzen du, eta ugaltze-koloniak eta udakoak atikoetan eta koba beroetan egoten dira. Udaberrian, zubiak erabiltzea ere ohikoa da. Espeziearen habitatak arro baxuak eta landa-paisaia irekiak barne hartzen ditu, baita herriak edo hiriak ere; basoko paisaia ireki mota ugari erabiltzen ditu.

Hauexek dira haren mehatxu nagusiak: eraikinak birgaitzeko prozesuetan zura tratatzeko erabiltzen diren intsektizidak, kolonien berariazko jazarpena eta suntsipena, babeslekuen galera (batez ere, habitat egokietako landako erakinetakoak) eta konposatu organokloratuekin fumigatzearen ondoriozko habitataren galera.

EAEn, nahiko espezie arrunta da eta hedatuta dago, baina ez dago horrelakorik isurialdeen banalerroko mendi-sisteman, ezta isurialde atlantikoko eremu garaietan ere. Populazioaren bilakaerari buruzko daturik ez dugun arren, zur-tratamenduek hildako asko eragin dituzte EAEn.

Barbastela, *Barbastella barbastellus* (Schreber, 1774)

Ugaltze-koloniak batez ere zutik dauden hildako zuhaitzen azalaren azpiak egoten dira, baina baita kontraleihoetan, eraikinen arrailetan edo teilatuetan ere. Ez dakigu Europako latitude beroenetan non hibernatzen duten, baina eremu epel eta hotzagoetan, batez ere, lurpeko babeslekuak okupatzen dituzte, hala nola kobak, bunkerrak, tunelak edo sotoak. EAEn, hoberen kontserbatutako basoak dituzten mendi-sistemetan daude hedatuta nagusiki.

Hauexek dira mehatxu-faktore nagusiak: babeslekuen galera hildako zuhaitzak moztearen ondorioz, babeslekuetako eragozpenak eta ehiza-habitataren narriadura elikagaiei dagokienez; azken horren kasuan, konposatu organokloratuen eta beste pestizida ez-espezifiko batzuen erabileraren ondorioz nagusiki.

EAEn, laginketetan aurkitutako aleen kopuru txikiak agerian jartzen du populazioa oso txikia dela eta eremu jakinetara mugatuta dagoela. Gainera, agerikoa da azken hamarkadetan hainbat herritatik desagertu dela.

Koba-saguzarra, *Miniopterus schreibersii* (Kuhl, 1817)

Ia beti kobetan eta meatzeetan babesten da, eta, bertan, ehunka edo milaka banakok osatutako agregazioak eratu ditzakete. Atikoetan, haitzen arrailetan edo zubietan ere, banako isolatuak eta talde txikiak aurki daitezke. Garaiera ertainetan ehizatzen du, ibaien, urmael edo herrien gainean, aeroplanktona ustiatuta.

Hauexek dira arrisku-faktoreak: babeslekuetako eragozpenak (kobetan bisitari gehiegi sartzearen ondorioz), babeslekuak ixtea, intsektiziden erabilera masiboa eta habitat naturala galtzea.

Egun, EAEn 2200 banako inguruko gutxieneko populazio ugaltzailea ezagutzen dugu, hiru babeslekutan dagoena, baita udaberriko populazio bat ere, 7 kobatan banatuta dagoena. Ez dago neguari buruzko daturik. Ondorioztatzen da azken hamarkadan EAEko populazioa % 30 murriztu dela.

II. ERANSKINA.- Baterako kudeaketa-planeko kiropteroen espezieen egungo mehatxuestatua. (L: lurpekoak; E: eraikinak; Z: zuhaitzak).

Izen zientifikoa	Izen arrunta	Babeslekuak	HZ eranskinak	Espezie Mehatxatuen Espainiak o Katalogoa	Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoa
<i>Rinolophus euryale</i>	ferra-saguzar mediterranea	L	II, IV	KA	GA
<i>Rinolophus ferrumequinum</i>	ferra-saguzar handia	L, E	II, IV	KA	KA
<i>Rinolophus hipposideros</i>	ferra-saguzar txikia	L, E	II	KA	IB
<i>Myotis myotis</i>	saguzar-belarri handia	L	II, IV	KA	GA
<i>Myotis emarginatus</i>	Geoffroy saguzarra edo belarri zatitukoa	L, E	II, IV	KA	KA
<i>Myotis bechsteinii</i>	basoko saguzar arratoi-belarria	L, Z	II, IV	KA	GA
<i>Plecotus auritus</i>	iparraldeko belarrihandi arrea	Z, L, E	IV	BBEBZ	IB
<i>Plecotus austriacus</i>	hegoaldeko belarrihandi arrea	L, E	IV	BBEBZ	IB
<i>Barbastella barbastellus</i>	barbastela	L, Z	II, IV	BBEBZ	GA
<i>Miniopterus schreibersii</i>	koba-saguzarra	L	II, IV	KA	KA

III. ERANSKINA.- Baterako kudeaketa-plana aplikatzen zaien lehentasunezko babeslekuak, itxituraren egungo egoera eta ezarritako sarbideen erregulazioa.

Rhi: *Rhinolophus hipposideros*; Rfe: *R. ferrumequinum*; Reu: *R. euryale*; Msc: *Miniopterus schreibersii*; Plsp: *Plecotus sp.*; Pas: *P. austriacus*; Par: *P. auritus*; Ese: *Eptesicus serotinus*; Mem: *Myotis emarginatus*; Mmy: *M. myotis*; Mna: *M. nattereri*; Mbe: *M. beschteinii*; Mmt: *M. mystacinus*; Mda: *M. daubentonii*; Bba: *Barbastella barbastellus*

Babeslekua	Hartzen dituen espezieak	Fenologia	UTM laukia (1x1 km)	Udalerria	Lurraldea	NGB	Sarrerako itxitura	Itxitura perimetrala	Sartzeko debekua
Cueva de los Murciélagos leizea	Rhi	Hibernazioa eta udaberriko trantsizioa	30TWN4113	Lantziego	Araba		Ez	Ez	Urte osoan
Legorras kobazuloa	Msc, Rfe, Rhi, Pas, Par, Ese	Udaberriko trantsizioa	30TWN2161	Zigoitia	Araba	Gorbeia	Ez	Ez	Ots/Eka
Arteko Gure Amaren santutegia	Rfe, Mem, Plsp	Ugalketa	30TVN8975	Artziniega	Araba		Ez da aplikatzen		
Gesaleko Atakako leizea	Mmy, Msc, Rfe, Rhi Mem,	Ugalketa	30TWN4632	Arraia-Maeztu	Araba	Entzia	Ez	Ez	Ez
Tuyoko leizea	Msc, Pas, Mna, Rfe, Rhi	Udaberriko trantsizioa	30TWN1238	Erriberagoitia	Araba		Ez	Ez	Ots/Eka
Tres Cantos leizea	Rfe	Hibernazioa	30TVN9264	Agiñaga	Araba		Ez	Ez	Abe/Ots
Kexaako dorretxea	Rfe	Ugalketa	30TVN9469	Kexaa	Araba		Ez da aplikatzen		
Itxulegorreko kobazuloa	Par, Mda, Bba, Mem, Mbe, Mna, Mmy, Mmt, Rfe, Ese	Uda ondoko taldea	30TWN1569	Orozko	Bizkaia	Gorbeia	Ez	Ez	Ez
Busturiko San Pedro	Reu, Rfe, Rhi, Msc, Mem	Udaberriko trantsizioa	30TWP2403	Busturia	Bizkaia	Urdaibai BE	Ez	Ez	Ots/Eka
Lezateko kobazuloa	Reu, Rfe, Rhi, Mem, Msc	Udaberriko trantsizioa	30TWN3694	Aulesti	Bizkaia		Ez	Ez	Api/Ira
Balmasedako San Severino eliza	Rfe, Reu, Mem	Ugalketa	30TVN8482	Balmaseda	Bizkaia		Ez da aplikatzen		

Pedro González leizea	Rfe, Rhi, Reu, Msc,	Hibernazioa	30TVN9190	Galdames	Bizkaia		Ez	Ez	Abe/Ots
Pozalagua haitzuloa	Rhi	Udaberriko trantsizioa	30TVN6889	Karrantza	Bizkaia	Armañon	Bai	Bai	Ots/Eka
Mañariko eliza	Rfe, Mem, Reu	Ugalketa	30TWN2776	Mañaria	Bizkaia		Ez da aplikatzen		
Abita koba	Rfe, Reu, Rhi, Mna, Mda	Hibernazioa	30TWN3998	Amoroto	Bizkaia		Bai	Ez	Abe/Ots
La Clara meategia	Rfe, Rhi	Hibernazioa	30TVN6485	Lanestosa	Bizkaia		Ez	Ez	Abe/Ots
Santa Luzia meategia	Rfe, Bba	Hibernazioa	30TWN2677	Izurtza/ Durango	Bizkaia	Urkiola	Ez	Ez	Abe/Ots
Atxurra kobazuloa	Reu, Rfe, Rhi, Msc	Hibernazioa eta udaberriko trantsizioa	30TWN4197	Berriatua	Bizkaia		Bai	Ez	Urte osoan
Raneroko Santa Isabeleko kobazuloa	Reu, Rfe, Rhi, Msc, Mem	Hibernazioa, udaberriko trantsizioa eta ugalketa	30TVN6989	Karrantza	Bizkaia	Armañon	Bai	Ez	Urte osoan
Siete Puertas meategia	Rfe, Rhi, Reu, Msc, Mem	Hibernazioa, udaberriko trantsizioa eta ugalketa	30TVN8091	Artzentales	Bizkaia		Ez	Bai	Urte osoan
Beleen kobazuloa	Msc, Rfe, Rhi, Reu	Udaberriko trantsizioa eta ugalketa	30TVN9289	Galdames	Bizkaia		Ez	Ez	Urte osoan
Hilar meategia	Rfe, Rhi	Hibernación	30TVN8091	Turtzioz	Bizkaia		Ez	Ez	Abe/Ots
Zamundi-La Negrako kobazuloa	Rfe	Hibernazioa	30TVN9988	Alonsotegi	Bizkaia		Ez	Ez	Abe/Ots

Urallaga meategia	Msc	Hibernazioa	30TVN9291	Galdames	Bizkaia		Ez	Ez	Abe/Ots
Artekona leizea	Reu, Rfe	Hibernazioa	30TVN9290	Galdames	Bizkaia		Ez	Ez	Abe/Ots
Angizolea baserria	Reu, Rfe, Mem	Ugalketa	30TWN3694	Aulesti	Bizkaia		Ez da aplikatzen		
Santa Eufemia azpiestazioa	Rhi	Ugalketa	30TWN3791	Aulesti	Bizkaia		Ez da aplikatzen		
Kobaundi leize-zuloa	Msc, Rfe, Rhi	Udaberriko trantsizioa	30TWN3868	Arrasate	Gipuzkoa		Ez	Ez	Ots/Eka
Iritegi haitzuloa	Rfe, Rhi, Msc	Hibernazioa eta udaberriko trantsizioa	30TWN4858	Oñati	Gipuzkoa	Aizkorri-Aratz	Ez	Ez	Urr/Eka
Aixako zuloa	Msc, Rfe, Rhi, Reu, Mem	Udaberriko trantsizioa	30TWN5391	Deba	Gipuzkoa		Ez	Ez	Ots/Eka
Sagain Zelaiko koba	Rfe, Rhi Pas, Mem, Ese, Mda, Mna	Hibernazioa eta uda ondoko taldea	30TWN6981	Asteasu	Gipuzkoa		Ez	Bai	Abu/Ots
Mutiloko eliza	Ese, Mem, Rfe, Plsp., Ppi	Ugalketa	30TWN5963	Mutiloa	Gipuzkoa		Ez da aplikatzen		
Gaztelu Arroko Leizea III	Mda, Mem, Par, Rfe, Rhi	Uda ondoko taldea	30TWN4258	Eskoriatza	Gipuzkoa	Aizkorri-Aratz	Ez	Ez	Abu/Urr
Eperkueneko Leizea	Bba, Mbe, Mem, Pas, Rhi	Uda ondoko taldea	30TWN5784	Azpeitia	Gipuzkoa		Ez	Ez	Abu/Urr
Sesiarte I	Bba, Mem, Mna, Rfe, Rhi	Uda ondoko taldea	30TWN5686	Deba	Gipuzkoa		Ez	Ez	Abu/Urr
San Bartolome eliza	Rhi	Ugalketa	30TWN7466	Amezketza	Gipuzkoa		Ez da aplikatzen		

Areantzako eliza	Rhi	Ugalketa	30TWN4162	Aretxabaleta	Gipuzkoa	Ez da aplikatzen
Aizpurutxo eliza	Rhi	Ugalketa	30TWN5275	Azpeitia	Gipuzkoa	Ez da aplikatzen
Matxinbentako eliza	Rhi	Ugalketa	30TWN6173	Azpeitia	Gipuzkoa	Ez da aplikatzen
Nabea	Mem, Rfe	Ugalketa	30TWN6086	Zestoa	Gipuzkoa	Ez da aplikatzen
Andra Mari eliza	Mem, Rfe, Rhi	Ugalketa	30TWN7075	Albiztur	Gipuzkoa	Ez da aplikatzen
Andra Mari eliza	Plsp.	Ugalketa	30TWN7270	Orendain	Gipuzkoa	Ez da aplikatzen

IV. ERANSKINA.- Fenologia eta lehentasunezko babeslekuak eta bestelako babeslekuak lokalizatzeko eta monitorizatzeko gomendatutako metodoa.

1. Hibernazio-koloniak. Abendutik otsailera, biak barne.
 - I. Bisitak babeslekuetara.
2. Udaberriko trantsizio koloniak. Maiatza.
 - I. Bisitak babeslekuetara.
 - II. Detektagailuak + kamera-grabazioak larrialdi krepuskularraren bitartean
3. Ugaltze-koloniak. Ekaineko bigarren hamabostaldia eta uztaileko lehena.
 - I. Lurpeko babeslekuak: Detektagailuak + kamera-grabazioak larrialdi krepuskularraren bitartean
 - II. Eraikinak: Detektagailuak + kamera-grabazioak larrialdi krepuskularraren bitartean eta bisitak babeslekuetara
4. Uda ondoko agregazioaren eremuak. Abuztuko bigarren hamabostaldia eta iraileko lehena.
 - I. Detektagailuak (grabazioa ondoz ondo 5 gautan)

Babeslekua	Fenologia	Garaia	Metodoa	Ahalegina
Cueva de los Murciélagos leizea	Hibernazioa Udaberriko trantsizioa	Otsaila Maiatza	Zenbaketa bisuala Zenbaketa bisuala	Egun erdia Egun erdia
Legorras kobazuloa	Udaberriko trantsizioa	Martxoa/maiatza	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
La Encinako santutegia	Ugalketa	Ekaina	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Gesaleko Atakako leizea	Ugalketa	Uztaila	Bideoa/audioa	Gau bat (grabazioa) + egun erdia (azterketa)
Tuyoko leizea	Udaberriko trantsizioa	Maiatza	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Tres Cantos leizea	Hibernazioa	Urtarrila	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Kexaako dorretxea	Ugalketa	Uztaila	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Itxulegorreko kobazuloa	Uda ondoko agregazioa	Iraila	Audioa	Egun bat (batu/bildu) + 6 egun (azterketa)
Busturiko San Pedro	Udaberriko trantsizioa	Maiatza	Bideoa/audioa	Gau bat (grabazioa) + egun erdia (azterketa)
Lezateko kobazuloa	Udaberriko trantsizioa Ugalketa	Maiatza Uztaila	Bideoa/audioa Bideoa/audioa	Gau bat (grabazioa) + egun erdia (azterketa) Gau bat (grabazioa) + egun erdia (azterketa)
Balmasedako San Severino eliza	Ugalketa	Uztaila	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Pedro González leizea	Hibernazioa Udaberriko trantsizioa	Otsaila Apirila/mai	Zenbaketa bisuala	Egun erdia Gau bat (grabazioa) +

		atza	Bideoa/audioa	egun erdia (azterketa)
Pozalagua haitzuloa	Ugalketa	Uztaila	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Mañariko eliza	Ugalketa	Ekaina	Bideoa/audioa	Gau bat (grabazioa) + egun erdia (azterketa)
Abita koba	Hibernazioa	Otsaila	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Raneroko Santa Isabeleko kobazuloa	Hibernazioa Udaberriko trantsizioa Ugalketa	Otsaila Maiatza Uztaila	Zenbaketa bisuala Bideoa/audioa Bideoa/audioa	Egun erdia Gau bat (grabazioa) + egun erdia (azterketa) Gau bat (grabazioa) + egun erdia (azterketa)
La Clara meategia	Hibernazioa	Otsaila	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Santa Luzia meategia	Hibernazioa	Otsaila	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Siete Puertas meategia	Hibernazioa Udaberriko trantsizioa Ugalketa	Otsaila Maiatza Uztaila	Zenbaketa bisuala Zenbaketa bisuala Zenbaketa bisuala	Egun erdia Egun erdia Egun erdia
Beleen kobazuloa	Udaberriko trantsizioa Ugalketa	Martxoa/m aiatza Uztaila	Zenbaketa bisuala Zenbaketa bisuala	Egun erdia Egun erdia
Atxurra kobazuloa	Hibernazioa Udaberriko trantsizioa	Otsaila Maiatza	Zenbaketa bisuala Bideoa/audioa	Egun erdia Gau bat (grabazioa) + egun erdia (azterketa)
Hilar meategia	Hibernazioa	Urtarrila	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Zamundi-La Negrako kobazuloa	Hibernazioa	Urtarrila	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Urallaga meategia	Hibernazioa	Urtarrila	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Artekona leizea	Hibernazioa	Urtarrila	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Angizolea baserria	Ugalketa	Uztaila	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Santa Eufemia azpiestazioa	Ugalketa	Uztaila	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Kobaundi leize-zuloa	Udaberriko trantsizioa	Maiatza	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Iritegi haitzuloa	Hibernazioa	Otsaila	Zenbaketa	Egun erdia

	Udaberriko trantsizioa	Maiatza	bisuala Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Aixako zuloa	Udaberriko trantsizioa	Maiatza	Bideoa/audioa	Gau bat (grabazioa) + egun erdia (azterketa)
Sagain Zelaiko koba	Hibernazioa	Otsaila	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Mutiloko eliza	Ugalketa	Ekaina	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Gaztelu Arroko Leizea III	Uda ondoko taldea	Iraila	Audioa	Egun bat (batu/bildu) + 6 egun (azterketa)
Eperkueneko leizea	Uda ondoko taldea	Iraila	Audioa	Egun bat (batu/bildu) + 6 egun (azterketa)
Sesiarte I	Uda ondoko taldea	Iraila	Audioa	Egun bat (batu/bildu) + 6 egun (azterketa)
San Bartolome eliza	Ugalketa	Uztaila	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Areantzako eliza	Ugalketa	Uztaila	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Aizpurutxo eliza	Ugalketa	Uztaila	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Matxinbentako eliza	Ugalketa	Uztaila	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Nabea	Ugalketa	Uztaila	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Andra Mari eliza	Ugalketa	Uztaila	Zenbaketa bisuala	Egun erdia
Andra Mari eliza	Ugalketa	Uztaila	Zenbaketa bisuala	Egun erdia

V. ERANSKINA. Lehentasunezko babeslekuetan eta bestelako lurpeko babeslekuetan kiropteroak igarotzea bermatzeko gomendatutako itxitura motak.

1. Perimetrala:

A. leizeak edo aukera ez-perimetralik posible ez den kobazuloak.

2. Ez-perimetrala

A. Horizontala

- a. Galeria edo sarbidea guztiz ixtea
- b. Ardatz zirkularreko hodiak (edo habexka biribilak), gutxienez 10 cm-ko diametroa dutenak.
- c. Hodien arteko espazioa: 15 cm
- d. Hauetarako erabiliko dira: *i)* saguzarrek babesleku berean nagusiki erabiltzen dutena ez den sarreren itxituretarako, eta betiere sarrera horietatik heltzen den galeriak babeslekuaren barruan konektatuta badaude; *ii)* zulorako sarrera bakarra izanik, posiblea ez denean beste itxitura mota bat instalatzea eta maniobratzeko gaitasun txikia eta hegaldi azkarra duten espezieei eragiten ez badie, hala nola *Miniopterus schreibersii* espezieari; eta *iii)* itxiturak eragozten duenean saguzarrek erabiltzen ez dituzten lurpeko zuloaren sekzioetara sartzea.

B. Bertikala

- a. Teilatu garaiak dituzten galerietan erabiltzen da, itxitura edo saguzarrak horren gainetik igarotzea ahalbidetzen duten kasuetan. Itxituraren altuera 2,5 eta 3 m artekoa izango da.
- b. Itxituraren gaineko espazio librea 1 eta 2 m artekoa izango da.
- c. Egokia da maniobratzeko gaitasun txikia eta hegaldi azkarra duten espezieentzat, hala nola *Miniopterus schreibersii* espeziearentzat.

VI. ERANSKINA.- Baterako kudeaketa-plana eta horretan jasotako kiropteroen espezieen kontserbazio-egoera ebaluatzeko metodologia-proposamen orientagarria.

1.- Babesleku bakoitzean haxe ebaluatuko da:

- a) Aplikazio-eremuarekin lotutako betebeharrak (5. artikulua).
 - Egiaztatuko da ea 4. artikuluan ezarritakoa betetzen duten babeslekuak III. eranskineko zerrendan dauden.
 - Lehenetasunezko babeslekuak barne hartzen dituzten naturagune babestuak planifikatzeko eta kudeatzeko tresnetan, egiaztatuko da ea baterako kudeaketa-plan honen edukiak sartu diren.
- b) Ingurumenaren ebaluazioarekin lotutako betebeharrak (6. artikulua).
 - Lurpeko babeslekuren batean eragina izan duten plan, programa edo proiektuetan, egiaztatuko da ea ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa sartu den, baterako kudeaketa-plan honen helburuei lotutako eragina aztertzen duen atalean.
 - Lurpeko babeslekuren batean itxituraren bat eraiki izan balitz, egiaztatuko da ea saguzarrak igarotzea ez eragozteko beharrezko baldintzak betetzen dituen.
 - Lehenetasunezko babeslekuren batean edo kilometro bateko erradioan eragina izan duten plan, programa edo proiektuetan, egiaztatuko da ea ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa sartu den, baterako kudeaketa-plan honen helburuei lotutako eragina aztertzen duen atalean.
- c) Baterako kudeaketa-plana aplikatzen zaien lehenetasunezko babeslekuei buruzko III. eranskinean ezarritako arauen betetze-maila ebaluatuko da, itxituraren egungo egoerarekin eta ezarritako sarbideen erregulazioarekin lotuta daudenak.

2.- Baterako kudeaketa-planaren 2. artikuluan ezarritako helburuen betetze-maila espezie bakoitzaren kasuan ebaluatuko da.

- a) «Galzorian» kategoria duten espezieentzat:
 - Espezie hertsiki kabernikolak:
 - i. Fenologia-etapa guztien koloniak mantendu diren aztertzea.
 - ii. Ugaltze-populazioaren tamaina mantendu den aztertzea.
 - iii. Karrantza haraneko eta Urdaibai-Lea-Artibaiko ferra-saguzar mediterraneoaren ugaltze-populazioak mantendu diren aztertzea.
 - iv. Kolonia berriak ezarri diren aztertzea.
 - Noizbehinkako kabernikolak diren espezieak: Lehenetasunezko babeslekuetako fenologia-etapa guztien koloniak mantendu diren aztertzea.

b) «Kaltebera» kategoria duten espezieak

➤ Espezie hertsiki kabernikolak:

i. Lehentasunezko babeslekuetako fenologia-etapa guztien kolonien tamaina mantendu den aztertzea.

ii. Ugaltze-populazioaren tamaina % 10 handitu den aztertzea.

➤ Noizbehinkako kabernikolak diren espezieak: Lehentasunezko babeslekuetako fenologia-etapa guztien kolonien tamaina mantendu den aztertzea.

3.- Debeku orokorren betetze-mailaren ebaluazioa (7. artikulua).

4.- Baterako kudeaketa-planaren ebaluazio orokorra, irizpide hauek aintzat hartuta:

➤ Hartutako neurriek helburuak betetzeko balio izan al dute?

➤ Egokiak al dira helburuak?

➤ Egokiak al dira plan honen premisak? Hots, egokia al da babeslekuak babestea animaliak berreskuratzeko?